



“Alzheimerraren ondorioak ekiditeko kontzientziazioaren, prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, diagnostikoaren, tratamenduaren eta doluaren inguruan jardutea ezinbestekoa da”

- **Irailaren 21ean Alzheimerraren Nazioarteko eguna ospatuko da, eta Udalak hainbat ekintza antolatu ditu**
- **Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak azaldu du zaintzaren alorrean lanean dihardutela azken hilabeteetan eta zaintzailea jarriko dute erdigunean aurtengo edizioan**

Datorren irailaren 21ean izango den Alzheimerraren Nazioarteko Egunaren baitan, adierazpena egin eta antolatu den programaren berri eman dute astelehen honetan prentsaurrekoan Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi, oposizioko alderdi eta Bertxin eta Santakruz jubilatuko ordezkariak, baita hainbat jubilatutako ere.

Barandiaranek azaldu du, datuek diotenaren arabera, azken urteotan Alzheimerraren gaixotasuna pairatzen duten pertsonen kopurua etengabe goraka doala, eta honekin batera, baita zaintzaileak diren senitartekoena ere. Gainera, datorren urteetan ere, joera honek jarraipena izango duela espero da.

Hori dela eta, gaixotasun honen ondorioek, gaixotasuna dutenen, euren zaintzaileen eta familia-inguruen bizi baldintzak, gero eta gehiagotan, eragingo dituzte.

“Aurreko urtean adierazi izan den bezala, oraingoan ere azpimarratu nahi dugu kontzientziazioaren, prebentzioaren, detekzio goiztiarraren, diagnostikoaren, tratamenduaren eta doluaren inguruan jarduteko garrantzia”, gehitu du zinegotziak.

Udala, Zaintzen inguruan prozesu eta lanketa garrantzitsua egiten ari da azken hilabete hauetan eta Alzheimerraren Nazioarteko Eguna baliatu nahi izan du prozesu honetan urrats berriak emateko eta eduki berriz betetzeko. Beraz, aurtengo programan, gaixotasuna pairatzen duen pertsona alde batera utzi gabe, zaintzailea jarri da erdigunean. Hauek dira antolatu diren ekintzak:

-Irailaren 19an: ‘Lejos de ella’ filmaren emankizuna, Miren Altuna Azkargorta neurologoaren aurkezpenarekin. Era berean, gaixotasunaren inguruko informazioa ere eskainiko du.

-Irailaren 21ean: hitzaldia antolatu da, ‘Jakitea nahi dut’ izenburu duen Gipuzkoako Foru Aldundiko programa da eta berau aurkezteko, programa horren arduraduna, Olaia Arana hizlaria, gonbidatu dugu.

Bi jarduerak Basteron izango dira, arratsaldeko 18:00etan. Gonbidapenak, Gizarte Zerbitzuetako eraikinean utziko dira.

Azkenik, Udaleko alderdi politikoekin adierazpen bat adostu da Alzheimerraren Nazioarteko Egunaren harira eta irailaren 21ean bertan argitaratuko da.